

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna	03. Gizarte Inklusioa 03. Inclusión Social	231.110 Gizarte Inklusioa 231.110 Inclusión Social
09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad		

"Gizarte Inklusioa" deritzon egitarauaren gauzatze-maila, 2022ko abenduaren 31ra arte, honako hau izan da:

1. helburua "Gizarteratze-prozesuetarako arreta" ekintza honen bidez garatzen da:

- (I) Arreta integrala, egoitzakoa eta/edo egoitzakoa ez dena ematea gizarte-bazterkeriako egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonen. Guztira 487 pertsona artatu dira; horietatik 113 emakumeak ziren, 29 18-29 urteko gazteak eta 4 18-29 urteko gazteak.

2. helburua "Gizarteratzeko beste jarduketa batzuk" honako ekintza hauen bidez garatzen da:

- (I) Gizarteratzeko beste jarduketa batzuk eskaintzea. Guztira 352 pertsona artatu dira, eta horietatik 60 emakumeak ziren.

3. helburua "Gazteentzako arreta (18-23 urte)" ekintza honen bidez garatzen da:

- (I) Emantzipazio-prozesuetan edo bazterkeriaren prebentzio prozesuetan dauden gazteei (18-23) arreta integrala, egoitzakoa eta/edo egoitzakoa ez den arreta ematea, erreferentziakoa figura heldurik ez duten gazteei zuzenduta, kasu batzuetan gizartean desagokitze jokabideak dituztenak. Kasu horretan, 657 pertsona artatu dira, eta horietatik 136 emakumeak ziren.

4. helburua "Gaixotasun mentala artatzea" ekintza honen bidez garatzen da:

- (I) Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eta gaixotasun mental larria eta kronikoa duten pertsonen arreta integrala, egoitzakoa eta/edo egoitzakoa ez dena ematea. Guztira 137 pertsona artatu dira; horietatik 43 emakumeak ziren, 10 18 eta 29 urte bitarteko gazteak eta 4 18 eta 29 urte bitarteko emakume gazteak.

El nivel de ejecución del Programa "Inclusión Social", a fecha treinta y uno de diciembre de 2022, es como se indica a continuación:

El objetivo 1 "Atención a procesos de inclusión", se desarrolla a través de la siguiente acción:

- (I) Prestar atención integral, residencial y/o no residencial a personas en situación de exclusión social o riesgo de la misma. Se ha atendido un total de 487 personas, de las cuales 113 eran mujeres, 29 jóvenes de 18-29 años y 4 mujeres jóvenes de 18-29 años.

El objetivo 2 "Otras actuaciones para la inclusión social", se desarrolla a través de la acción de:

- (I) Prestar otras actuaciones para la inclusión social. Se ha atendido un total de 352 personas, de las cuales 60 eran mujeres.

El objetivo 3 "Atención a personas jóvenes (18-23 años)", se desarrolla a través de la acción:

- (I) Prestar atención integral, residencial y/o no residencial, a personas jóvenes (18-23) en procesos de emancipación o prevención de la exclusión, dirigida a personas jóvenes carentes de figuras adultas de referencia, en algunos casos con conductas de desadaptación social. El mismo se ha cumplido con 657 personas atendidas, de las cuales 136 eran mujeres.

El Objetivo 4 "Atención enfermedad mental", se desarrolla a través de la acción:

- (I) Prestar atención integral, residencial y/o no residencial, a personas en situación de exclusión social y con enfermedad mental grave y crónica. Se ha atendido un total 137 personas; de las cuáles 43 eran mujeres, 10 jóvenes de 18 a 29 años y 4 mujeres jóvenes de 18 a 29 años.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
09. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna	03. Gizarte Inklusioa 03. <i>Inclusión Social</i>	231.110 Gizarte Inklusioa 231.110 <i>Inclusión Social</i>
09. Empleo, Inclusión Social e Igualdad		

5. helburua, "Gizarteratze-prozesuak ekonomikoki bultzatu", xedea baliabide ekonomiko-eza ordezte da, falta horrek banakako egoerak pixkanaka hondatzea ekar dezakeelako, eta gizarte-bazterkeriako egoerak eragin edo larriagotu ditzake. Ondorioz funtsezkotzat eta garrantzitsutzat jotzen da egoera horiek arintzen lagunduko duten prestazio ekonomikoak ematea, honako hauek kudeatuz garatuko dena:

- (I) Gizarte Inklusioko zentroetan sartzeko laguntza ekonomikoak: egindako laguntzen ordainketa kopurua 12 izan da, eta horietatik 12 emakumeei egin zaizkie.
- (II) Gizarteratzeko Laguntza berezia: gizarteratzeko laguntza berezien 702 titular daude guztira, guztiak ere (laguntza hauen izaeragatik) 18 eta 29 urte bitarteko gazteak, eta horietatik 73 emakumeak izan dira.
- (III) Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioak ematea: 386 hartzaileekin; horietatik 245 ezintasunagatik izan dira eta 141 zahartzaroagatik. Ezintasunagatik prestazioa jasotzen duten 245 pertsonetatik 37 18 eta 29 urte bitartekoak dira, eta horietatik 13 emakumeak.

6. helburua "Erabiltzaileen premiak baloratzea, diagnostikatzea, orientatzea eta zehaztea": 331 kasu baloratu eta diagnostikatu dira, eta horietatik 77 emakumeei dagozkienak izan dira, eta 178 18 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkienak.

Azkenik, 7. helburuari dagokionez, "Emakumeak hitzartutako zerbitzuetan sartzeko sustatzen duten neurriak ezartzea", 77 emakume lehenetsi dira guztira.

El Objetivo 5 "Impulsar económicamente procesos de inclusión" pretende suplir la carencia de recursos económicos, que puede acarrear un progresivo deterioro de situaciones individuales y que puede causar o agravar situaciones de exclusión social. En consecuencia, se considera de fundamental importancia la concesión de prestaciones económicas que ayuden a paliar estas situaciones y que se desarrollará mediante la gestión de:

- (I) Ayudas económicas para ingresos en centros de Inclusión Social: el número de pagos de ayudas efectuados ha sido de 12, de los cuales 12 se han efectuado a mujeres.
- (II) Ayuda Especial para la Inclusión Social: con un total de 702 titulares de ayudas especiales para la inclusión social, todos ellos, (por el carácter de éste tipo de ayudas) jóvenes de entre 18 y 29 años de edad, de los cuales 73 han sido mujeres.
- (III) Concesión de Pensiones del Fondo de Bienestar Social: con 386 personas perceptoras, de las que 245 serán por incapacidad y 141 por ancianidad. De las 245 personas perceptoras por incapacidad, 37 se encuentran entre 18 y 29 años, de las cuales 13 son mujeres.

El objetivo 6 "Valoración, diagnóstico y orientación y determinación de las necesidades de las personas usuarias": se han valorado y diagnosticado 331 casos, de los cuales 77 han sido relativos a mujeres y 178 a jóvenes de entre 18 y 29 años.

Por último, en cuanto al objetivo 7 "Establecimiento de medidas que fomenten el acceso de mujeres a servicios convenidos", ha habido un total de 77 mujeres priorizadas.